

Agin Laburu eta Beñat Ugartetxea Diman Gaztetxean hilaren 15ean

13. orrialdea

"Harro bizi euskeraz Lemoan" bideokliparen grabaketa hasi da

Larregi taldeak eta Lemoako Euskera Zerbitzuak sortutako kantuen bideokliparen grabaketa hasi da. Hileon, herriko kuadrila, alkarte eta erakundeen txandea izango da. Hilaren 16an, herri guztia dago deituta grabazioan parte hartzeako. Bideokliparen aurkezpena martiaren 1ean izango da. 12. orrialdea



Igorreko Eskupelota Elkarteak 28 urte pelotearen alde beharrean

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

201

2014ko zezeilaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

...bihar da ba Deun Agate

Arratia, Ubide eta Zeberioko koruak, Agate Deunaren koplen errepertorio luzea kantauko dabe santearen bezpera egunean.

A besbatzak, Musika Eskolako ikasleak, ikastetxeetakoak, parrokiako koruak, kuadrillak eta beren beregi Agate Deunaren koplak kantetako sortutakoak gure eskualdeko bazter guztietara ailegatu dira. Arratiako Koruak, Arantzazu, Diman, Igorren eta Lemoan kantauko dau Zornotzara eta handik Bilbora joan aurretik. Bilbon zehar ibili eta gero, Santiago katedralean kontzertua eskeiniko dau eta buel-

tan Bedian, Artean, Zeanurin eta Areatzan kantauko dau Musika Eskolako umeakaz batera.

Kopla batzuk koru guztiak kantetan dabez, baina koru askok kopla desbardinak daukiez euren errepertorioan. Arratiako korua lau kopla desbardin ditu. Zeanuriko Agate Deunaren ermitan kantetan dauan koruak, santearen martirioa deskribiduten dauan kopla luze eta originala kantetan dau. 12. orrialdea



Arratiako Korua.

LEMOA

Ikur frankistak botateko aurrekontuak eskatzen hasi da Udala

Lemoako Udalak, Lemoan dagozan ikur frankistak kentzeako proposamena ago batez onartu eta honetarako aurrekontuak eskatzen hasi da. 1992an, etxeetako plakak kentzea, kurutz bideko kurutzeak botatzea, Lemoatxeko baseleizeari beste erabilera bat emotea eta tontorreko kurutzeari esangura erlijiosoa emotea onartu zan, baina 21 urte beranduago lehengo lekuan jarraituten dabe plaka eta kurutzeok.

Lemoatx 1937 Memoria Historikoaren Berreskurapenerako Batzorde Herrikoiak, tontorreko kurutzea ikur frankistea dala frogatu dau eta hau be bota egingo dabe. Ermita barrizatzeko lanak, Auzolandegien bidez hasi ziran izazko udan. 8. eta 9. orrialdeak

BEDIA

Alfusa eta Incoesa burrukan

Alfuseko beharginak euren lanpostuetara itzuli ziran urtailaren 17an, baina mobilizazioetan jarraituten dabe, lanixteak tartean. Ebatzia enpresek Bediako lantegia "hiltzen itxi gura daualako" hartu eben beharginak.

Incoesako Bediako lantegia zarratuteko be enpresek Enplegu Erregulazino Espedientea aurkeztu dauala emon dau jakitera LAB sindikatuak. Beharginak Lakuan sartu ziran urtailaren 29an "ehun produktiboaren aldeko benetako apustua" eskatuteko Jaurlaritzari. 5. orrialdea

IGORRE

Hogeta hamalau igorreztarrek beharra topau dabe Beharbideri esker

Igorreko Udalak Beharbide izeneko enplegu proiektua martxan ipini ebanetik 34 lan kontratu egin dira: praktikak egiteko, aldi baterako edo finkoak. Aldalan enpresek hartu eban igorreztarrentzako lana bilatzeko ardura. Abiapuntua enpresen preminak izan da. 114 enpresak hartu dabe parte enplegua sustatzeko Udalaren ekimen honetan. 7. orrialdea



Zure katu edo txakurarentzat onena

Ziarrusta poligonoa
26 pabilioia
48141 Dima
94 641 01 16
687 382 711


tienda@euskalmushing.com
www.euskalmushing.com
www.saludanimales

800 m² dituan pabilioia txakur eta katuentzako produktuakaz.

Arazoak dituen txakur eta katuentzako goi mailako elikadura espezializaua.

Prezio itzelak!

Produktu naturalak.



IGTIE

ZUGATZAK LANDATZEKO SASOIA DA

XIX. mendeko gerrak eragindako zorrak, desamortizazio prozesuak eta baso eta lur komunalen pribatizazioak hego Euskal Herriko (batez be Kantauri isurialdeko) zugaztien deforestazio ikeragarria ekarri eben. XX. mende hasieran gure basoak euren historian zehar inoz ezagutu daben azalera txikiena izan eben.

Bizkaian, XIX. mende amaieran egin ziran hazkuntza azkarreko zugatz espezie exotikoakaz lehenengo birlanaketak. Testuinguru haretan agertu zan *Pinus radiata*, Kaliforniako pinua, ordutik hona gure paisajeak bete dituan *insignis* pinua. Holan, bada, gaur egungo Kantauri isurialdean, 600 metrotik behera, *insignis*-

ren ezelango monolaborantzea daukagu.

Hemen 'basoa' deitzean dogun hori ez da beti basoa, eta ondo dator bereiztea 'basoa' eta 'landaketea'. Guk hemen 'pinu landaketea' daukagu, alde ekologikotik ez dauka baso ekosistema batek daukan ezaugarri eta bioaniztasun guztia, ez da gauza bera.

Eskala handitan egiten dan ustiaketea eta naturearen konserbazioa harmonizetea sano gatx egiten da normalean. Atzen hamarkadetan, intensidade maila handiko ustiaketea eredu bultzatu da. Higadura edo lurzoruaren galerea ekarri dituen praktikak erabili izan dira, basoa osorik botatz eta gure mendi aldapatsuetan

makinak sartuz. Ezin dogu lurra galtzean itxi, lurzorua mantentzen egin behar da, ezin deusaguna dana atera ezer emon barik.

Basoak ustiatzeko eredu ekonomizista eta produktibista hutsak ez ditu epe luzean gure beharrianak asetzen, monolaborantzan oinarritutako ereduak ez dau naturearen iraupena bermatzen. Horregatik oreka eta errespetua oso kontuan hartu behar doguz.

Badagoz esperientzia desbardinak baso landaketen inguruan, helburu desbardinakaz egindako esperientziak. Ekoizpena helburu danean, kalidazeko egurra bilatzen da (*Sorbus* familiako zugatzak, astigarra, lizarra, haritza...), edo frutuak (sagarra, intxaurrak, kereziondoak...) edo onddoak (gaztainondoak...). Eta konserbazioa helburu danean bertako



landaredia potentziala hautatu eta landatzen da (gure lurraldea hain da bioanizta, aukera zabala dala benetan).

Bere baso landaketea ekoizpena zuzendu gura dauanak jakin dagiala gaur egun merkadua hain dala globala, beharbada ez dau-

la bertatik inoz zentimorik jasoko (ez badau behintzat kalidatea lehenesten). Aldiz, gure bertako basoen konserbazioa bilatzen dauanak ziurtatuta dauka baso berezi, bioanizta eta bizia etorkizunerako. Opari ezin ederragoa gure ondorengozat!

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Zezeilaren 3tik 9ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zezeilaren 10etik 16ra
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 17tik 23ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Estatus barria: Independentzia

"Estatus berria-erabakitzeo eskubidea" irakurri barri dot egunkarietako argazki baten ageri zan pankarta baten. Eta ezin ulertuan nabil oraindino herri gisa urteetan defendatu dogunaren diluzinoa; askatasun mailaren jaitziera.

Herri honek, iraun gura badau, hizkuntza eta kultura indartu, zainketa berezietatik atera, beste estatus bat behar dau, jakina. Estatus horri independentzia deitu izan jako abertzaleen artean nire oroimena iristen dan garaietatik, eta baita askoz lehenagotik be. Lehen, independentzia eguneroko berbea zan, hitzetik hortzera gerabilena. "Garai barrietan", estatus barria berbak ordezkatu dabe independentzia. Zergaitik ez deutsagu herri honen helburu nagusia behar leukeanari bere izenez deitzean? Edo helburua aldatu egin da independentzia momentuz alde batera itxiz?

Herri honek aske izan gura dau bere herri izakereagaitik; Independentzia gura eta behar dau. Horra hor ebazteko eskubidea gauzatua. Orain artean, baina, ez dogu asmatu behar hori gauzatzen, ez gara bihurtu subjektu politiko. Gauzatze hori autodeterminazioa da; gure kasuan, Inde-

pendentzia, herri bat garalako.

Ez daukagu askatasunik, ez demokraziarik, ez marko demokratikorik izango independentzia lortzean ez badogu, demokrazia herri honentzat (edozeinentzat legez) independentziagaz hasiko da eta.

Independentziarako bide hau ezin da egin estaduak emondako erakundeetan (hareen osotasuna bermatzeko eginak dagoz eta) edo gure herria ukatzen dabena batera. Independentziaren bidean indarrak batu eta aurrera egin behar dogu, helburu nagusia argi izanda. Herri honek badauka indarra eta arnasa nahikoa horretarako.

ASIER EZPELETA JAUREGI

Irakurle guztiai zuzenduta:

Nire izena Bernardo da, Arratia bailarako Arantzazu herrikoa naz. Orain dala hilabete eskas Bedia zeharkatzen dauan N-240 errepidean eginitako errotanda barri baten istripua izan neban. Tamalez, nire abiadura ez zan beste mundukoa, hori dala eta, nire lehenengo pentsamentua, "izotz baltza" k atrapau ninduala izan zan, kontuan izanda goizaldean suertatu zala, eta goiz haretan eguraldia sano freskoa zala.

Baina egunak aurrera pasau ahal ohartu nintzan bertan hainbat

istripu izan zirala. Gaur egun oraindino izaten dira. Informazio hau Arratian dagozan aseguru etxeko lagunak emon eusten, eroan neban "txapa tailerra"-koak be esan eustan, eta Bizkaibusean biaketan daben nire familiakoak esandakotik be atera neban.

Hau dala eta, bertan izan diran kaltetu guztiakaz kontaktuan paratea gustauko litxakit, horretarako idatzi eizue hurrengo e-posta helbide honetara: bernardurpe@gmail.com. Holan ea danon artean indarra egiten dogun, gure keja eta salaketa idatziz aginduteko, bai Bedia udaltxera (eurek egindako errepidearen aldaketa dalako) eta Bizkaiko Aldundiaren Herri Lanak eta Garraio departamentura.

Krisi egun honeetan ondo ikusten dot "txapa tailerrak" halako gertakariak lana izatea, baina ziur hainbat familiak, bertan izandako istripuak dirala eta, ezingo dituela kalteak konpondu lan faltea medio dala (adibidez). Ea danon artean indarra egiten dogun eta diru-kalteak Bedia herrian egindako errepide aldaketaren "errudunak" txikiagorazoten deuskuen.

Eskerrik asko.

BERNARDO URETA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA



IZASKUN ASTONDOA

Antondoa Pirotekniako arduraduna

Piroteknia: merkaduan ipintea eta erabilera

Produktu pirotekniko salmentea legeak arautzen dau. Piroteknia holan sailkatzen da:

Piroteknia artifizioak: talde honetan jolas piroteknia lez ezagutzen dana dago. 1, 2 eta 3 kategoriak publikoari saldu daitezke. Erabilteko edadeari jagokonean, 12, 16 eta 18 urte arte da hurrengo hurrengo. 4. kategoriakoak aditu karneta daukan jenteari saldu ahal jakie bakarrik. Espainian ez dago aditu "autonomorik". Adituak piroteknia tailer batera edo ikuskizun piroteknikoaren montaketari lotuta dagoz.

Antzerkian erabilteko artikulua: eszenalekuan erabilten diran artikulua dira, publikotik hur, lehen aitatutako 4. kategoriakoak botateko behar dan distantzian baino txikiagoan erabilten dira. T1 eta T2 kategorietan dagoz bananduta; T1ekoak, 18 urte baino gehiagokoak saldu ahal jakie; T2koak, barriz, adituak bakarrik, C4 artifizioak legez.

Beste batzuk: Artikulu piroteknikoak dira, ez jolas piroteknia moduan erabilteko, ezta antzerkian be. Esan leiteke beste artikulua pirotekniko guztiak hemen sartzean dirala. Talde honetako adibideak dira, hatxak apurtzekoak, insulina emotekoak, perkutoreak, erabilera industrialeko keak, kaxkabarraren kontrako bolanderak, sorospen seinaleak, eta abar. Batzuek 18 urtetik gorakoentzako salmenta librea daukie, P1; eta besteak

adituentzako bakarrik dira, C4 artifizioak legez.

Itsasoan erabiltekoak: sorospen seinaleak dira, itsasoan erabilera komertzial, profesional edo jolas erabilera emonda. Enbarkazinoak seinale piroteknikoeko ekipo minimo bat euki behar dabe derigor. Honen mota eta kopurua, itsasoan zehar sartzean dan distantziaren arabera izango da. Produktu honek nautika dendetan erosten dira.

Produktu pirotekniko guztiak, jarraibideak lehenengo enbasean eroan behar dabez. Danetan ipintzen da zein kategoriakoak diran eta erabilteko edadea.

Ikuskizun baten adituen erabilera araututa dago. Baina ez da holan erabilteko partikularra danen. Urtairean 1ean, Euskadiko uriburuetan piroteknikoaren erabilera 00:00etatik 00:15etara bakarrik baimendu zala esan da. Ohiturea da, batez be Bizkaiaren, zarateagaz ospatutea urte barria. Zoritxarrez, urtero hedabideak erredura edo traumengaitiko ospitaleratzeen barri emoten dabe. Istripuen % 99aren atzean, erabilera ez egokia dago. Itxi deiogun beste % 1a produktuen akatsari.

Itaun hau egun gurako neuke: Edozein artifizioaren jarraibideetako lehenengo lerroan agertzen bada: "ez oratu eskuagaz", zelanda posible ospitaleratzeak egotea erredura edo petardo baten leherketeagaitik?

Aurten, etxe bloke oso baten Pasaiako sutea izana penatu beharra dago. Ondino zergaitik izan dan konfirmatu barik egon arren, itsasoan erabilteko sorospen seinale bat izan zala emoten dau. Konbenziduta nago istripu bat izan zala eta ez zala kalte egiteko asmorik egon; baina gertatu, gertatu egin da. Itauna zera da, ebitau eitekean? Ez, erabilera galarazota. Bai, jenteari gogora arazota jarraibideak irakurri behar dirala eta zentzua erabili behar dala.

*Erredakzinoan itzulita

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Zezeil

ZEZEILA						
A	M	E	E	B	Z	D
						1 2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

Askok jakin dakigun arren, gero eta gitxiago entzuten dan zezeila da (seséle, agoskatuta) urtearen bigarren hilabetea. Batuaz, otsaila esaten da. Antxina, andrazkoen (hilekoaren zikloagaitik) edo katuen hilea (katuila berbea jasota dago Arratian) izan ei zan. Zezeila be hilerik laburrena da, 28 edo 29 egun baino ez ditu. Honegaz lotu behar dogu Diman jasotako hiletikerra berbea.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Errealitate
Batzen gaitia

MONDRAGON

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Futbol ligea egungo gizartearen espilu?

Krisia eta ustelkeria futbolera be bete-bete heldu diran sasoi honetan (adibiderik ipini behar da?), hausnarketa (sasi) sakonak egiteko joerea hedatu da futbol zaleon artean. Ez da futbol ligea aspergarri (edo, inorentzat, aspergarriago) bihurtzen ari? Bi super talde (orain bertan hirugarren bat be bai, baina ez luzerako eta ez hain super, nire ustean) sailkapeneko lehen postuetan eroso, eta hamazortzi zoro bandera konparsarena egiten, mahaipetik afaltzen. Nonorrek esango dau hori beti izan dala holan. Bada bai eta ez. Gauzea da tartea zabaltzen dabilela, eta arin gainera. Krisi honetatik aberatsak aberatsago eta pobreak pobrego ateratzen dabiz. Horrek gizarterako ez ezik futbolerako be balio dau. Eta, gizartearen gertatzen danaren antzera, futbolearen be aberatsak

pobreak behar dabez bizirauteko. Edo nonorrek uste dau Real Madrilak eta Barçak bakar-bakarrik jokatu tuteko liga batek arrakastarik eukingo leukenik?

Krisitik ateratzeko futbolak ez ditu zale gehiago behar, dirua hobeto banandutea baino. Eta horrek, denporaz, zaleak be hobeto bananduko leukez. Zeren oraingo egoera ez da osasuntsua. Zaleen gehiengo dinoanaren kontra egongo da eta, beraz, nire eretxia antidemokratikotzat joko dabelako arriskua dago. Estaduko futbol zale guztien artetik (hemen dator demokrazia, edo gehiengoaren diktadura, zeuk aukeratu) % 32,8 RMkoak dira eta % 25,7 Barçakoak. Beste taldeak gogoko daukien zaleak askoz gitxiago dira, eta, edozelan, guztiak batura be, %40 pasatxo egiten dabe, gitxiengo beraz. (Porzierto, zaleen sailkapenean hirugarrena Valencia da, % 5,3gaz, eta laugarrena gure Athletica, % 4,3gaz.) Zalegoari jagokonean super talde bien eta besteen arteko tartea sekulakoa da, ia-ia aurrekontuetan dagoana modukoa. Igaz RMak 517 miloe euro gastau zituan, Barçak 470! Athleticak, aldiz, 58 (zazpigarrena alor horretan), eta Rayo Vallecanok, lehen mailako pobreenak, 7,5 besterik ez. Telebistako eskubideetatik kobretan diran miloeak modu egoiki eta "antidemokratiko" baten banatzean dago gakoa, eta etorkizuna. Gizarteari, aldiz, nahikoa litxakio demokrazia gehiago erabiltea arazo bardinari aurre egiteko.

ZERTZEAN



IKER YURREBASO

Guatxapa guai dau

Imajinatu hiri batean zaudela, edo ez, hobeto basoko zulo sakon batean. Ez, imajinatu zelai berde baten erdian etxola txiki batean zaudela.

Orain, mahaian zure aurrean aurkitzen den emakumea irudikatu ezazu, zahar, sudurluze eta begibakar nahi baduzu. Edo bestela, gazte, panpox eta axolagabe.

Ondo, eskuak hartu dizkizu, eta zure etorkizuna irakurtzen hasi da. "Maiteminduko zara botila batekin, bidaia luze bat hasiko duzu botila baten barruan, istripu bat ikusten dut eta kristal hautsiak, eta beldurra, sekretu bat eta ardo gorri naparra..."

Orduan, mezu bat jaso duzu guatxapean, mobila hartu nahi izan duzu baina sorginak ez dizkizu eskuak askatzen, indar egin duzu baina tinko eusten dizu, orduan beste mezu bat iritsi da, eta urduritzen hasi zara. Zutitu egin zara bortitz, eta kristalezko bola majikoa jira-biraka lurraren kontra plausta!

Bat-batean iratzarri zara siestatik. Telebistan saio gastronomiko bat dago, platerean haragia barazkiekin eta basoan ardo gorria. Aurkezlearen bularretara begira zaudenean guatxapera mezu bat iritsi da. "Gero betiko lekuan betiko orduan beti bezala". Erantzun behar ote duzun galdetu diozu zeure buruari.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Gauza handia da publikoa, pribadua txikerra eta sofistika, antza. Telefono honek legez (eta garraioa? eskolak? klinikak?) izan be, publikoak baliabideen erabilera sostengarriagoa ahalbidetzen dau eta demokratikoagoa da, danon eskura dago eta. Pribaduak, barriz, konsumismoa bultzatzen dau eta batzuen eskura baino ez dago, baina estatusa emoten dau, sofistikazino puntu bat.

Publikoa desagertzen doala dirudi, jaubetza pribadua indartzen doan neurrian. Telefono bi honek legez. Eskukoa, modernidadearen ikurra da, ezinbestekoa bizimodu moderno honetarako. Telefono publikoak, barriz, beste sasoi batekoa dirudi, desagertzean dagoan dinosauroa.

Dana dala, dinosauroak ez dira errez hiltzen. Madrilen PPK ezin izan dau osasuna pribatizau. Publikoa deuseztatzea ezin da beti sofistika-zinoz jantzi.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Biokala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel: 94 657 54 50

BEDIA

Enpresa zuzendaritzeak Incoesa zarratu gura dau

Urtilaren 29an, Incoesako behargin batzuk Eusko

Jaurlaritzaren egoitzan sartu ziran Arantza Tapia Ekonomia,

Garapen eta Lehiakortasunerako Sailburuari bilera eskatzeko.



Incoesako langileak Lakuan.

Argazkia: LAB sindikatua.

Erredakzinoa

Beharginak Eusko Jaurlaritzari "ehun produktiboaren aldeko benetako apostua", eta beharginak batera Bediako lantegia mantenduteko bideragarritasun plana egitea eskatzen deusie. Baita, enpreseari emondako diru laguntza eskatzeko, Foru Aldundiak egin dauan moduan. Ekintza honegaz, Industria Saileko Gorka Etxaberen bilera egiteko konpromisoa lortu dabela jakinarazo dau LABek.

Langileak konkursoko administrazioaileagaz izandako azken alkarrizketaren ondoren, enpresek behargin guztiak kaleratzeko EEEa aurkeztu

daua eta Bediako lantegia zarratutako asmoa daukala salatu eben egun bi lehenago. Epaitegiak lekualdatzeak baliobakotu eta Aldundiak deslokalizazioaren espedientea martxan ipini arren, Bediako lan zentroaren espektatibak sano txarrak dirala dino LAB sindikatuak. Dana dala, beharginak Bediako bideragarria dala uste dabe eta horretan arazoia emon deutsee, neurri baten behintzat, instituzinoak eta epaileak.

Incoesako ekoizpen jardueren Bizkaian gelditu daiten, Bediako lantegia barriro zabaltzeko helburua izango daben programak eta ekimenak bideratu beharko liriteke diru laguntzen bidez, beharginen eretxian.

BEDIA

Alfuseko beharginak greba mugabakoa itxi baina mobilizazioetan segiduten dabe

Erredakzinoa

Hamar hilabeteko greba egin ondoren, urtilaren 17an euren lanpostuetara itzuli ziran Bediako Alfus FCCko beharginak, "lanpostuak hiltzen ez ixteko". Hata guzti be, urtilaren 23an eta 30ean, lanixteak egin ebezan eta mobilizazioak egiten jarraituteko asmoa agertu dabe. Beharginak zuzendaritzeak Bediako lantegia ixtea pentsetan egon daitekelako susmoa hartuta ebatzi eben greba mugabakoa amaitutea. "Mobilizazioak ez dira amaitu. Beste fase baten sartu gara eta lanpostuetara itzuli gara, Alfuseko bizirik iraun daian. FCCk hiltzen itxi gura dau eta" dino Tamara Martin LAB sindikatukoak.

Erakundeakoz batzarrrak

Xabier Losantos Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendariagaz, Imanol Padrales Sustapen Ekonomikoko eta Berrikuntzako Foru Diputadagaz eta SPRiko ordezkariak batzartu dira Alfuseko beharginak. Orain, enpresearen txandea da "FCCk zer egin behar dauan argitu behar dau, baina ez dau barririk emoten" dino Martinek.

UBIDE

Txarriboda herrikoia eta odoloste lehiaketea antolatu eban jai batzordeak

Erredakzinoa

Txarriboda herrikoia eta herriarrek egindako odoloste lehiaketea antolatu eben Ubiden urtilaren 25 eta 26an. Odoloste lehiaketea Pauli Unzalu, Bernar Urrutia eta bere lagunak irabazi eben. Sano maila onekoak zirala buzkantzak esan eben dastatu ebenak. Izan be, talde bakoitzean buzkantzagintzan esperientzia handiko jentea egoan.

Zapatuan, txarria hil, barrukoak atera eta bertaratutakoak gibela jan eben. Koipea hotzitutakoan odolosteak egiteari ekin eutsien partaideak. Arrastian, odoloste eta buzkantza lehiaketea antolatu egoan eta hiru talde aurkeztu ziran arren, txarriak koipe gitxi emon ebala eta talde bi egitea ebatzi zan. Talde baten, Pauli, Bernar eta bere lagunak; eta bestean, Garbi eta lagunak.

Saria: ezkerreko pernila

Domekan, txarria zatitu eta 11:00etan, talde bakoitzeko odolosteak epaileen esku ipini ziran. Epaimahaia, Batzokiak, Herriko Tabernak eta Urbide Jatetxeak osatu eben. Ordubete beranduago, epaileak frontoian agertu ziran ebazpena emoteko: Pauli Unzalu eta Bernar Urrutiak osotutako taldearen buzkantzak izan ziran irabazleak. Lehen saria txarriaren ezkerreko pernila izan zan eta bigarrena txarriaren burua eta hankak.

Txarriaren zatiakaz loteak egin ziran eta partaideak ipinitako prezioan saldu ziran. Ekitaldiari amaierara emoteko ubideztarrrak, zein egun horretan Ubidera gerturatutako hainbatek plazan buzkantzak dastatzeko aukerea izan eben. "Gehienak Ubiden talde biak egindako odolosteak oso maila onekoak izan zirala aitortu eben" dino ubideztar batek.



Ubideztarrrak txarriak erosten.

ARRATIA

Bedia eta Igorre arteko martxea antolatu dau Arratiako Bilduk

"Arratiek badeko etorkizune, eraiki daigun!" lemapean,

Arratiako Bilduk hainbat ekimen ipini ditu martxan,

eskualdean bizi dan egoera larriari urtenbidea bilatzeko

asmoz. Egoerearen inguruko hausnarketea, berbaldia eta

Bedia eta Igorre arteko martxea dira horreetako batzuk.

Erredakzinoa

EH Bildu koalizioaren Arratiako hautetsiak agerraldia egin eben prensaurrean urtilaren 27an, "eskualde honetan pairatzen dogun

egoera jasangaitza salatu eta abian jartzen ari garan dinamika baten barri emon nahian". Hori dala eta, egoerearen inguruko hausnarketea egin eta urtenbideak adosteko eragile politiko, sindikal

eta sozialakaz hartu-emonetan ipiniko zirala emon eben jakitera. Bildukoak, berbaldia egingo dabe hilaren 6an, arrastiko 19:30ean Lemoako Jubiladuen Etxean, bertan, Anton Borja EHuko irakaslea eta Pello Otxandiano EH Bilduko kidea izango dira. Hilaren 15ean, goizeko 11:00etan, martxa bat antolatu dabe Bedia eta Igorre artean "egoerearen larritasuna irudikatuz eta urtenbidea guztion artean bilatu behar dogula aldarrikatuz".

Egoera larria

Langabezia dala eta, "benetako" arazoa dagoala Arratian esan eben Bildukoak. "Mila persona baino gehiago dagoz langabezia. 2009ko datuak alderatuz, atzen lau urteotan langabezia % 20 baino gehiago igo da". Enpresa txiker eta ertainen "isilpeko desindustrializazio" prozesua dagoala salatu eben, eta denpora laburrean ostalaritzako negoziak eta denda

txikiak "biziraupen hutsera" kondenau dirala. Nekazaritza, barriz, "jarduera subsidiarioa" bihurtuten dagoala esan eben.

Erakundearen gelditasuna be salatu eban Arratiako Bilduk. "Alarma guztiak piztuta dagoz Arratian, eskualde honen etorkizuna kinka larrian dago eta honen aurrean instituzino desbardinaren partetik ez da ezer egiten".

Plan orokorra eta alkarlana

Bildukoaren ustez, ez dago etorkizuna bermatuko dauan plan integral bat Arratiarentzat eta hau beharrezkoa da. "Horretarako guztion esku-hartzea beharrezkoa izango da, tamalez Arratiaren biziraupena ez dago soilik arratiarren eskuetan". Horregaitik, erakunde, eragile politiko, sindikal, sozial eta herritarren inplikazioa bilatuko dabela esan eben.



Arratiako Bildukoak prensaurrekoan.

ARRATIA

Etxeetako aztarna ekologikoa gitxitzeko Aktibatu+ kanpaina abian da

Aktibatu+ dirua aurrezten eta ingurumena jagoten lagunduten dauan programea da.

Erredakzioa

Programa honek udalerrietako biztanleen, ikastetxeetako ikasleek eta familien parte hartze aktiboa sustatzen dau, bakotzak bere aztarna ekologikoa gitxitu daian. Ekimen hau, Nazino Batuen Ingurumen Programeak eta UNESCOk bultzatutako Ekintza Plan Globalaren (Global Action Plan GAP) barruan dago. Arratia eta Nerbioi eskualdeetan bultzatzeko, urtailaren 29an, honen barri emon eben prensurrean Aitor Sorriketa Arratiako Udalen Mankomunitateko lehendakariordeak, Amaia Betolaza Galdakaoko alkateordeak eta Carlos Oppe GAP Internationaleko lehendakaria.

Programa honen helburua etxeetan energia konsumoa % 5 gitxitzea, edukiontzien erabilera % 12 gehitzea eta CO₂ isurketak % 7 gitxitzea da eta horretarako erremintak emoten ditu Aktibatu+ programeak. Parte hartu gura dabenak webgune bat daukie www.bizkaia21.net-en.

Bertan inkesta bat bete behar da etxeo ohituren barri emonez eta kasu bakotxean zer egin daiteken aurretuteko agertzen da. Hamabi astez aholku horreek jarraituta, beste galdetegi bat bete behar da jakiteko zenbat aurreztu dan.

Suedian zein Arratian

GAP programea, Holandan eta Estatu Batuetan hasi zan garatzen 1992an, Rioko goi bilerearen ostean. Harrezkero 26 herrialde atxikitu jakoz programeari; Britania Handia, Suedia, Vietnam,

Uganda, Kosovo, Nepal eta Polonia, beste batzuen artean. Idazkaritzaren egoitzea Suedian dago eta handik koordinetan da programea.

Aktibatu+ 2013-2014 edizinoan, Arratia eta Zeberion dago garatzen. Izan be, Arratiako 149 etxek parte hartzean dabe eta batz beste, erregaia % 14, ur konsumoa % 7, argindarra % 5,5 eta hondakinak % 3 gitxitu dabez.

Ikastetxeai jagokienean, Dimako Ugarana Herri Ikastetxeak be parte hartzean dau ekimen honetan.



Aktibatu+ programearen aurkezpena.

ARRATIA

"Blokeo egoerea gainditu" dabe eskola garraio eta janlekuetako begiraleak**Erredakzioa**

Urtailaren 27an, greba mugabakoari ekin eutsien eskola garraio eta janleku eta jolaslekuetako begiraleak. Dana dala, gatazka ez dala asko luzatuko uste dabe. "Guraso eta eskolak geure alde daukaguz, ulertu dabe zein dan arazoa" dinoe Arratiako Euleneko begiraleak. Jaurlaritzak be auzia lehenbailehen konpontzeko asmoa agertu dau.

Urtailaren 30ean, Jaurlaritzako Lan Sailagaz batu ziran begiraleak eta bileratik pozik atera ziran. "Enpresearen partetik aurrerapausuak egon dira, baina oraindino asko daukagu negoziatuko" azaldu eutsan BEGIRURI Araitz Aja LAB sindikatuko Zerbitzu Pribaduetako Arduradunak. Negoziazino horreek zezeilaren 3an jarraituko dabez.

Horregaitik, begiraleak arazoa laster konponduko dala uste dabe, "bibrizino positiboak daukaguz", dinoe. Azken finean, Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna da eta familietan era-

gin zuzena dauka gatazka honek.

Eulen enpresek soldadak ez deutse igon atzen 5 urteotan begiraleai, Eusko Jaurlaritzak urtean-urtean horretarako dirua emon arren. Begiraleen aldarikapen nagusiak soldaten bi puntu t'erdiko soldata igoera, eta hitzarmenen ultra aktibidadea dira; hau da, hitzarmen baten indaraldia amaitzen danean eta beste bat lortu arte aurrekoak jarraitutea.

Adinekoen egoitzetan lanixteak

Bizkaiko hirugarren adineko egoitzetan ELAk lanixteak deitu ditu hilaren 6, 7, 27 eta 28rako. "Hamahiru hilabetez negoziatu eta sei egunetan lanixteak izan ondoren, sektoreko enpresarioak hasikerako puntuan kateuta dagoz" dino ELA sindikatuak.

ELAk salatu dau patronalak ez dauala jarkerea aldatu puntu batzuetan "esaterako, derrigorrezko arbitrajea edota beharginen lan-baldintzak alde bakarretik aldatutako aukerea".

IGORRE

Sei talde beharrean jaiak prestatzeko**Erredakzioa**

Jaiak prestatzeko taldeak 2013ko udagoienean egindako prozesuan oinarritu dira. Umeentzako ekintzak, txosnea, kirol ekintzak, sormena (ekintza barriak), musikea, komunikazioa, jubilauek eta kuadrilen koordinadorea dira talde honeek.

"Igorretarren parte hartzea handitzeko, kiroldegian, Jubiladuen Txokoa eta Kultur Etxean kuxak ipiniko dira. Honek idea eta eskariak jasoteko asmoa dago" dinoe Batzordetik.

Zezeilan osterari lehiaketa bi ipini ditue martxan: bata jaietako kartela aukeratzeko eta bestea Jai Batzordearen logoa egiteko. Parte hartzeako Igorrekoa izan behar da eta aurten saria, dirua izan beharrean, herrian gastetako bonoak izango dira. Lanak martiaren 17ra arte aurkeztu daitezke. Hurrengo batzarrak hilaren 20an izango da, arrastiko zazpitan Kultur Etxean.

IGORRE

Agirre Lehendakaria kalearen peatonalizazioa hasiko da aurten**Erredakzioa**

Bidea gaur egun Foru Aldundiarena izatea ez dala traba izango hasikerako esku hartzeak egiteko dinoe Udaletik. Igorreko kale nagusia oinezkoentzat izateko lehentasuna dauka Bildu eta EAJ-PNVko udal taldeentzat.

Aurreko legegintzaldian talde guztien babesagaz onartu zan ehun eta bost moduan ezagutzen dan lekuaren peatonalizazioa, eta aurten urteari begira horixe izango da Igorreko Udalaren "apustu nagusia". Izan be, oinezkoen joan etorri handia dago eremu horretan, eskoletara, institutura, kiroldegira, BATZera... eta arrisku egoera asko gertatzen dira oinezkoentzat. Proiektu honek oinezkoentzako gune erosoak sortu gura dau. Aurten, kalea eraberritzeko lanak hasiko dira.

Hori dala eta, Foru Aldundiak zeharbidea egokitzeko diru kantidadearen erraklamazioa eskatu dau Igorreko Udalak, eta txosten juridikoetan oinarritu dago. "Aldundiak ezin ditu igorretarrak gatibu hartu. N-240 jasan daben herritarrei zor jakie hainbeste" dino Beinat Anzola alkateak.

Zebrabideak eta biribilguneak

Gobernu taldea Dimarako bidekurutzan errotonda egiteko diseinua zuzentzen dabil. Gainera, 105 eta Garbe tartean dagoan aparkalekua asfaltatu eta argiztapen egokiaz jartzeko asmoa dago. Udal iturrien arabera, Kultur Etxeko plaza aurrean zebrabide bat egiteko baimena eskatu da eta baita Farmazia eta Laboral Kutxaren artean beste zebrabide bat egiteko. Obra honek aurrera eramateko Udalak ez dau zorpetzerik aurrikusten.



Agirre Lehendakaria kalea.

IGORRE

EAJ-PNVk hainbat lehentasun markau ditu Udal aurrekonturako**Erredakzioa**

Igorreko EAJ-PNV alderdiaren udal taldeak ekimen sorta bat aurkeztu dau 2014ko aurrekontuetan Udalak lehentasuna emateko. Tartean, egiteko dagozan urigintza-proiektuak eta enplegua sustatzeko politikea dagoz.

EAJ-PNVren taldeak udalari eskatu deutso berehala indarrean ipinteko eta egin dagiazala Lehendakari Agirre kalean egiteko dagozan lanak, plan baten barruan epeka, eta hasi daitela egiten Beko Plazara eta San Kristobalera hartzeako bidekurutzan errotonda bat. "Proiektua erabat motelduta dago eta Igorreko herriarentzat garrantzi handikoa da" dinoe prensa ohar baten. Ekitaldi honetan Goiko Plazako frontoia eraberritzea be eskatzen dau Igorreko EAJ-PNVk. Hau da, frontoiari

"txapela" ipinteko, urte guztian zehar erabili ahal izateko, "estalitako eremuen arloan hutsunea" dago eta.

Enplegua eta eskolak barrizatze dirua

Enplegurako, 300.000 euroko zenbatekoa ipintea be proposatu dau "Igorreko langabetuen kontratazio maila sustatzeko" beste gauza batzuen artean.

Diru-sail bat ipintea eskoletan barrikuntzak egiteko be eskatu dau, "jolaslekuan, eskola eremuan eta ikasgela gehiago egiteko". Eta Gezala auzoraino doan espaloio proiektua amaitzeko diru-sail bat sartzea.

Mobikortasuna eta urigintza arloan EAJ-PNVk proposatuten dau kamioientzako aparkalekua egitea Industrialdean eta "Viviendas de Bizkaia"ren orubean, ibilgailuen aparkalekua atontzea.

ARRATIA

Konposta etxean egiteko formazioa emoten dabil Mankomunidadea

Arratiako landa inguruko familien % 40k, hau da 540 erabiltzailek emon dabe izena etxeko konpostajea egiteko eta horreetako gehienak formakuntza ikastaroetara joan dira.

Erredakzioa

Zezeilan be ikastaro honeetan parte hartzeako aukerea egongo da. Zezeilaren 6an, 10:30ean eta 17:00etan Igorreko Kultur Etxean eta 19:00etan Zeanuriko Kultur Etxean. Zezeilaren 7an barriz 10:30ean Zeanuriko Kultur Etxean eta 18:00etan Lemoako Jubilatuen gaineko aretoan izango dira formazio saioak. Eskoletan be konposta-



doreen gaineko kanpaina egingo dau Mankomunidadeak.

Formakuntza saio honeetan, beharrezko material guztia doan banatuten dau Mankomunidadeak; 360 litroko konpostagailua, konpost egurasbidea, konposta egiteko eskuliburua eta etxeko hondakin organikoetarako bio-hondakinen ontzia, hain zuzen be. "Izena emon dabena, konposta egiteko teknikariak joango jakiez etxera, zalantzak argitzeko, arazoak konpontzeko eta abar. Horrezaz gainera, edonoz, behar besteko laguntzea eta informazioa be eskeiniko jakie arratia21. arratia@bizkaia.org helbidean eta www.arratia.org/konposta blogean" dinoe Mankomunidadeak.

Kanpaineak harrera ona

540 lagunek emon dabe izena etxean konpostajea egiteko: Arantazun, 21ek; Areatzan 17k; Artean 40k; Bedian 35ek; Diman 114k; Igorren 112k; Lemoan 82k; Ubiden 5ek eta Zeanurin 113k.

tasuna, argitalpena, merituak eta ahalmenak, eta arintasuna" hartu behar dira kontuan. Lemoako atari digitalean eta udaletxeko eta auzoetako iragarki oholetan iragarri zan lan eskeintza hau eta ez-delitutzat jo dau epaileak.

Elizondoko Lagunak Alkarteak Beobideren kontrako salaketea aurkeztu eban eta Fiskaltzak 9 urteko desgaitasuna eta 60.000 euroko kalte-ordaina eskatuten eban.



Lemoako udaletxea.

LEMOA

Absolbidu egin dabe Jabier Beobide Lemoako alkate ohia

Erredakzioa

Bilboko Zigor Arloko Epaitegiak Jabier Beobide Lemoako alkate ohia prebrikazino delituagaitik absolbidu eban. Urtilaren 16an emondako epaian, 2010ean peoiak kontratatuko lan boltsa bat Bizkaiko Buletin Ofizialean ez argiratzeagaitik epaitu dabe Lemoako alkate izandakoa. Lan eskeintzak aldi baterako diranean, ez dala derrigorrezkoa Buletinean publiketea dino epaiak.

Aldi baterako kontratazioak Euskal Funtzino Publikoaren Legea bete behar dau, eta "bardin-

IGORRE

Beharbide enplegu proiektuagaz 34 lan kontratu bideratu ditu Aldalanek

Orain dala lauzpabost hilabete abiatu eban Aldalan enpresakoak Igorreko Udalerako Beharbide izeneko enplegu proiektua. Euren helburua enpresetara hurreratu eta igorretarrentzako enpleguak bilatzea da. Lehenengo fasea amaitu dabenean, Igorreko enpresen % 75ak parte hartu dau ekimen honetan eta 34 lanpostu sortu dira.

Erredakzioa

Abiapuntua enpresak izan dira. Igorreko enpresen datu basea zaharkitua topau ebela dino Marian Serrano Aldalanekoak. Datu base barri bat egin dabe eta 147 enpresa jasoten dabez bertan. Gero enpresakaz batzartu eta galdetegi bat pasau deutsee. Galdetegia enpresearen beharrak eta ze lanpostu sortuko ziran jakiteko zan. Diru laguntzen barri be emon deutsee enpresai. 114 enpresak hartu dabe parte enplegua sustatzeko Udalaren ekimen honetan.

Holan, 34 lanpostu atera dira. Kontratuak mota desbardinetakoak: praktikakoak, aldi baterakoak eta, gitxi batzuk, finkoak. Telefono bat be ipini dabe, beharginen bat behar dabenean enpresak deitzaeko.

"Lehenengo fase hau, batez be enpresa txikerretara zuzenduta egon da. Enpresa handiakaz beste hartu-emon modu bat egingo da" azaldu eban Beinat Anzola Igorreko alkateak. Aurretiaz badago hartu-emon hori eta erakundeakaz behar egiteko bere eretxia emon gura dauala esanez deitu dabe Industrialdeko enpresa batetik.

Lanbide Heziketa

Igorreko langabezia-tasa % 11,7koa da, 300 bat langabe dagoz herrian. Edadeari jagokonean, gehienak 30 urte baino



Aldalaneko teknikariak Beinat Anzola alkateagaz.

gitxiagokoak edo 45 baino gehiagokoak dira. Sexuaren arabera, langabe andrazko gehiago bada goz be, gizonak lanpostu gehiago galtzean dagozala esan eban Aldalaneko teknikariak. Igorren lana topatzeko aukera gehiago daukiez Lanbide Heziketa ikasi dabena, unibersidadera joan edo ikasketarik ez daukiena baino.

"Enpresak kejau dira, curriculum eskura sano gitxik erooten dabelako. Bost bat, urte osoan eta eurentzako ona dala karpeta baten curriculumak eukitea esan dabe". Izan be enpresa gehienak ez dabe inoz iragarkirik ipini beharginak kontratatuko, agoz agokoak funtzionetan dau Igorren.

"Krisia aurretik enplegu osoa egoan hemen, langabezia tasa ehuneko % 5a inguru zan-eta. Jentea ohituta egoan eskolatik urten orduko beharra eukitera" azaldu eban Anzolak. Baina be-

harra topetako ohiturak eta moduak aldatu behar izan dira.

Bigarren fasea, alderdien proposamenakaz

Lehenengo fasea, udaletxean dagozan alderdiakaz landu barik martxan ipini bazan be, bigarren honetan talde guztien proposamenak egongo dirala esan eban alkateak prensaurrean. "Aurrekontuak eztabaidatzen dagoz. Igaz, 25.000 euroko diru partidea egon zan honetarako". Aurten hori igotea gura dau Bilduk.

Bigarren fase honetan, ikastaroak, prestakuntza, lan bila dagozanen lan kompetentziak, gazteen jarkerak eta abar landuko dira.

Enplegu plan hau inguruan dagozan beste plan batzuen osagarri da. Mankomunidadean eta Gazterian be egin dira enplegua topatzeko beste plan batzuk eta.

ARRATIA

Abortatzeko eskubidearen aldeko berbaldia Diman

Erredakzioa

Gallardonon lege proposamena lege bihurtu ezker, andren bizitzan zelan eragingo dauan azaltzeko berbaldia emon eban Noka talde feministak Dimako gaztetxean urtilaren 24an, Emaik antolatuta. Dimakoa ez zan izan, Arratian emon eban lehenengo berbaldia. Lehenengo Lemoan izan zan, zemendiaren 28an eta Igorreko Kultur Etxean be jardun eban honen inguruan abenduaren

9an. Zezeilaren 7an, Areatzako Gaztetxean egongo dira Nokakoak

19:00etan eta martian Zeanurin Mazala alkarteak antolatuta.



Dimako berbaldia.

MEMORIA HISTORIKOA

Lemoatx tontorreko kurutzea ikur frankistea dala frogatu dau Lemoatx 1937 Batzordeak

Lemoako ikur frankistak kentzeako proposamena onartu eban Lemoako Udalak urtailean ago batez. Proposamena "Lemoatx 1937: Lemoako Memoria Historikoaren Berreskurapenerako Batzorde Herrikoiak egin eban. Holan, Lemoatx tontorreko kurutzea eta kurutz bidean dagozanak bota, fatxadetako Espainiako Etxebizitzaren Erakundearen plakak kendu eta Lemoatxeko baseleizeari beste erabilera bat emongo deusie.

Erredakzioa

1992ko apirilaren 2an Lemoako Udalak mozino bat onartu eban ikur frankistak kentzeako. Orduan, Elizondotik Ganzabalera doan bidekurutzea botatea eta etxeetako plakak kentzea, tonterreko kurutzeari esangura erlijiosoa emotea eta ermitea mendi aterpea bihurtutea ebatzi eban Udalak. Baina bidekurutzea eta fatxadetako plaka batzuk hor diraue.

Lemoatx 1937 batzordea 1993ko urtailean hasi zan lanean. Egindako lanen artean, ikur

frankisten identifikazioa egon da eta oraindino Lemoan kutsu frankista daukien sinboloak mantenduten dirala ondorioztatu dau. Hori dala eta, Lemoako Udaleko Kultura Batzordeari proposatu eutsan ikur frankisten inguruko txosten ofizial bat garatzea, ikur horreekaz zer egin behar dan aztertzea eta ikur horreek kendu edo eraldatzeko prozesua mar txan ipintea.

1992an onartu zan mozi noan ez bezala, Lemoatx 1937 batzordeak tontorreko kurutzea ikur frankistea dala frogatu dau.

"Kurutze hori bertan hildako frankisten oroimen ikur legez eregi zan, erlijino ikur bat izatetik urrun. 1937an eregitako kurutze haretan ondorengo grabadua irakurri eitekean: "A los que en defensa de una civilización dieron su vida por Dios y por España en esta peña. 5 de junio de 1937". Hori dala eta, kurutzea botatea ebatzi dau Udalak. Horretarako aurrekontuak eskatzen hasita dagozala esan deutso Udaleko Gazteria arloko Mikel Garciak BEGITURI. Mikel Garciak, Lemoatx 1937 batzorde herrikoia eta Udalaren arteko



Lemoatxeko ermitea.



Tontorreko kurutzea.

1992an, EAJ-PNVk ikur frankistak kentzeako mozinoa aurkeztu eban eta HBren ekarpenakaz ago batez onartu zan. Baina ondino ikurrok kendu barik dagoz

bitartekari lanak egiten dauz Lemoatx 1937 proiektuan.

Plakak eta kurutz bidea
Ikur frankistak botatea 1992an onartu bazan be, Lemoatx 1937koak hori egin barik egoala ikusi eben. Izan be, 1992an onartu zan mozinoan agertzen zan zerrendatik, 2014ko urtailean ondino kendu barik egozan Txiriboketako 32 eta 33 zenbakietako plakak, Intzuntzako 6, 8, 14 eta 21 zenbakietakoak eta Lemoretako 4 zenbakioa. Han agertzen ez diran beste plaka bi be topau

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA
Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Agirre
Pellet eta egur salmenta
616683613 (Iker)
ikerdima@yahoo.es
Igoneko Industrialdea
F11-3B

Berezitu
Bertan eginda
Murrizketa bako gogoko kapritxoak
Eskanek hartzen dira
Lemoatxeko Agirre, 11
Igorre 48140 Bidea
Telefonoa: 945 137 000
Faxa: 945 137 100
www.berezitu.com
berezitu@berezitu.com

dituela Lemoatx 1937 batzordeak esan eban Garciak.

Eta kurutz bidean 10 kurutze aurkitu daitezke ondino.

Memoria historikoa berreskuratzeko beharra

Lemoatx 1937 batzordean zortzi persona dabiz beharrean. Orain urtebete sortu zanetik batzordeak "Lemoatx 1937" proiektuari ekin deutsu. Gerra zibila zein ondorengo urteak bizi izan zituan herriko jentea alkarriztatzan dabiz. "Alkarrizketak bando bietako jenteari egiten deutsie. Batzuek bildurra daukie eta ez dabe lar kontetan" dino Garciak. Batzuek gerra sasoia bizi izan eben, nahiz eta Lemoatxeko batailan ez egon. Batailan bertan ez, baina bai gero gorpuak ikusi ebana be badago alkarrizketatuen artean

Izan be, Lemoatx 1937 proiektua dala eta, ikur frankistak identifiketeaz gainera, alkarrizketak, dokumentazio bilketea, bideo emonaldiak eta berbaldiak eta Lemoatxeko berreskurapen lanak egin ditue batzordekoak.

Dokumentazio bilketa "sakon bat dago martxan". Artxibo, heme-rotea eta liburuetakoinformazioa jaso dabe eta hurrengo fasean, alkarrizketak aztertu eta dokumentuetan aurkitutako informazioa alderatuko dabe batzorde hone-takoak.

Berbaldiak be emon dabez eta udan, Udaletxeko Gazteria arlotik antolatutako Auzolandegietan, 2013ko garagarri eta abuztua bitartean, lubakien zati baten eta tontorreko eraikinaren garbiketa lanak egin zituen. Lan hau egiteko, mundu osoko gazteak etorri ziran Auzolandegietara. Abuztuko atzen astegoienean, herritarrak garbitu ebezan inguruak auzolanaren bidez.

Gazteak eta historia zaleak

Proiektu hau, Auzolandegien bidez, Gazteria arlotik eroan dabe aurrera. "Gazteak jakin behar dabe errealidadea zein dan". Eurrak dira, akaso, urte hareetan zer gertatu zan jakinmin handiena daukienak. Izan be, Lemoatx 1937 batzorde herrikoien partaide asko gazteak dira eta Historia zaleak.

Lemoatxeko batailaren ondorioetan eta sasoi hareetan zelan bizi zan jentea ikertzen zentrau dirala dino Garciak. Ikerketea aurrera joan ahala, apur bat harrituta geratzen dira gazteak "hori gertatu zan hemen?" pentsetan.

2014an, lehengoaz gainera, Lemoatxeko tontorreko kurutzea be botatea onartu da. Aurrekontuak eskatzen hasi dala Udala dino Mikel Garcia Gazteria arlokoak.



Kurutz bideko kurutze bat.

KARMENGO AMA IKASTETXEA

AMOREBIETA-ETXANO

HEZKUNTZA ESKEINTZA: 0-16 urte.
JARRAIPENA: "El Carmelo" Ikastetxea.

GURE ARDATZAK	GURE ERRONKAK
<p>Giza eta Kristau BALOREAK. Euskera eta Euskal Kultura. Jasangarritasuna. Kalitatea Hezkutzan.</p>	<p>Barrikuntza. (First Lego League, Scratch, Camp Tecnologico oportetan...).</p> <p>Hizkuntzak eta komunikazioa. Hizkuntza Trataera Bateratua, 2. atzerriko hizkuntza alemana / Cambridge azterketak...</p> <p>Alkartasun Proiektua. Gikore (ONG Educ@s).</p> <p>Aniztasunaren trataera.</p>

MATRIKULAZIOA
OTSAILAREN 3tik 14ra.

ATEAK ZABALIK
Otsailak 1
11:00h

BESTE BATZUK:

JANTOKIA: janaria bertan eginda.
INSTALAZIO ZABALAK (15.000 m²).

www.karmengoama.net
Sabino Arana kalea, 24 – Tfnoa. 946730935

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxes. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkai)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.

SOKATIREA

Badaiotz, hirugarren, Sokarri kanporatuta

Erredakzioa

Idiazabalen jokatu zan Euskal Herriko goma gaineko Sokatira Txapelketako finala, 640 kilokoetan gizonekoetan, eta 540 andrazkoetan. Andrazkoetan, Ruth Linaza lemoztarraren Gasteizko Badaiotz taldeak hirugarren egin eban. Gizonezkoetan, barriz, Abadinok irabazi eban txapela. Arrigorriagako Sokarri taldea deskalifikau egin eben, errietaldi bat zala eta.

Orain, gizonen 600 kiloko txapelketea dago martxan eta Galder Gobantes Zeberioko tiralariaren

Sokarri taldea, bigarren dago. Finala hilaren 8an izango da Bilboko Etxetxea Plazako kiroldegian. Andrazkoak, 500 kilokoak jokaturen dabiz. Finala Ezpeletan izango dabe hilaren 15ean.

Munduko txapelketeari begira


Hilaren 19tik 23ra jokatu da Irlandan Munduko Txapelketea. Orain dala urte bi, 2012an, Badaiotz izan zan Munduko Txapelketea 500 kilotan. Aurten be, irabazteko ilusinoagaz joango dira Badaiotz taldekoak.



Badaiotz taldea.

AIZKOREA

Aitzol Atutxa Urrezko Aizkolarien Bikotekako Txapelketan



Irati Urien

Urrezko Aizkolarien Bikotekako Txapelketea jokaturen dabiz momentu honetan aizkolaria. Urtaileko atzenengo astegoienean Aitzol Atutxa dimoztarrak eta Aratz Mugertza mutrikuarrak irabazi eben Jon Rondo eta Ander Erasun nafarren aurkako lehia, Urrotzen. Zezeilaren 9an Ataunen aritu beharko dira Atutxa eta Mugertza, Azurmendi eta Otaño bikote gipuzkoarraren kontra. Atzenengo bi honeek aurtengo txapelketea irabazteko faboritoak dira.

FUTBOLA



Arratia andrazkoen taldeak atzenengo partidu biak galdu ditu.

Emoítza eskasak lehenengo taldeak

Ainhoa Duñabeitia

Arratia andrazkoen futbol taldeak azken partidu biak galdu egin ditu. Etxetik kanpo jokatu zituan biak, urtailaren 18an Mariño taldearen kontra eta hurrengo astegoienean, urtailaren 25ean, Gasteizko Neskak taldea izan eben aurkari arratiarrak. Gol bat egin eutseen gasteiztarrak, hiru puntuak lortuz.

Gizonak hobeto

Gizonezkoen taldeak, urtailaren 19an Abadiñoren kontra etxean

jokatutako partidua galdu egin eban, 1-2. Hurrengo astegoienean be etxean jokatu eban Arratiak Indautxuren kontra. Hiru puntuak arratiarrak lortu ebezan, 1-0 irabazi ostean.

Arratia B taldeak, barriz, atzen partidu biak irabazi ditu. Urtailaren 26an Bilbon jokatu eban Iberlandaren aurka eta neurketea irabazi eban. Iberlanda 0 - Arratia 2. Zezeileko lehen astegoienean etxean jokatu eben arratiarrak Sondika B taldearen kontra. Partidu lasaia, errez irabazi eben eta, 4-1 izan zan atzen emoítza.

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 IGORRE
Tel. 94 631 15 26

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

begitu
publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Abokatuak
basolo Emaldi
Abokatuak
620. 57.86.04
asierbasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 73 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

ZEKUTZE
JATEXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejatexea@hotmail.com

umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA: LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTSULTAN
ONDASUN HIGIZIENEN ASIGURUTAN
Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

axular
kultur elkartea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: vnozalu@vodafone.net

PELOTEA

Pelota ikasle kopuruak behera egin dau Igorren atzen urteotan



Igorreko pelotariak.

Ainhoa Duñabeitia

Igorreko Eskupelota Elkartek 28 urteetan lan handia egin dau eta bizirik dirau. Alkarteko presidentea

Joseba Gomez da eta delegadua, Juan Angel Esparta. Azken urteotan eskupelotearen gaineko interesa gixitu egin da, baina Igorreko Pelota Elkarte bizirik dirauala

dinoe zuzendaritzakoak. "Urteak pasetan diranean eta edadeagaz batera, batzuek itxi egiten dabe", adierazo dau Joseba Gomezek, halanda be pelotariak egon bada-

goz.

Atzera begiratu ezker, aldaketea ikusi daiteke. Gixira arte berrogeita hamar bat mutiko egon dira entrenetan, orain barriz 30, danak gaztetxoak. "Kategoria guztiak betetzera heldu izan gara", dino Gomez presidentek. Pelotariak danak mutilak dira momentu honetan. "Orain dala oso gixira arte, neskak be egon dira". Entrenatzaile bi dagoz Igorreko pelota eskolan: Imanol Agirre Arteako pelotari eza-guna, eta Izei Gomez igorretarra.

Eskolakoak astean hiru egunetan entrenetan dabe, astelehen, eguazten eta eguenetan, arrastiko bostetatik aurrera Igorreko kiroldegian, txanda bakar baten. "Txapelketetan fin dabiz eta gustora" dino Gomezek.

Igorren pelota zaletasun handia egon da beti, eta hori ondo ikusten da Goñi moduko jokalariai datozanean. "Kirol hau aurrera aterateko eta jentea motibetako egiten doguz holango partiduak, plazer bat da frontoia beteta ikustea".

Pala taldea sortu nahian

Momentuz taldean neskari ez daukie baina neskentzako pala talde bat atera guran dabiz Igorren. Udaletxeagaz akordio batera hel-

du gura dabe entrenetako orduak izateko. Baina horretarako neskak izena emon behar dabe.

ERRUGBIA

Igoera fasea urrun

Ainhoa Duñabeitia

Arratiko Zekorrek Rugby Taldeari bigarren mailara igoteko igoera fasea aldapa gora ipini jako. Izan be, talde erdia lesionauta dago.

Azken norgehiagoka bietan huts egin dabe Zekorrek. Urtailaren 19an Ordizia taldearen bisitea izan eben Zekorrek etxean. Partidua gogorra izan zan eta gipuzkoarrak pasada ona emon eutseen. Arratiakoak entsegu bakar bat lortu eben. Hurrengo astegienean, Baztanen izan eben norgehiagokea. Bigarren postuan dagoan BRT Menditarrak RT izan eben aurkari eta 29 puntu lortu ebezan baztandarrak. Zekorrek huts egin eben barriz.

Hurrengo partidua Iruñan izango dabe, La Unica-ren kontra.

Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

* Deitu 649 979 115 telefonora

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



AGATE DEUNA

Santiago katedralean kontzertua
eskeiniko dau Arratiako Koruak

Erredakzioa

Kataniako martiri Deuna gurtutzen alkartu gara, bere laguntzaz eskatu daigun danontzat anaitasuna.

Arratiako koruak lau kopia desbardin daukaz bere errepertorioan, batzuk ezagunagoak, beste batzuk ez hainbeste. Urtero lez, koruak Arratian eta Bilbon kantauko ditu santearen omenezko klopak, tradizioari eutsi eta alkartasuna adierazoteko. Batutako dirua Caritasentzat izango da, igazko moduan, Caritasek dirua behar dabenen artean banandu daian. Aurten, koruak kontzertua eskeiniko dau Bilboko Santiago katedralean, arrastiko seiretan.

Berezia da Arratiako korua, egun honetako santaeskerako berenberegiz sortutakoa da eta. Aurten be, 65 lagun batu dira, tartean hiru gaztetxo hasibari. Berrogeta hamar bat lagunek kantetan dabe, beste hamar bat dirua batzean ibiltzen dira eta bost txistularik ipinten dabe musikea.

Gazteak koruaren % 15a baino ez

dabe osotuten eta "koruaren etorkizuna gazteen eskuetan dago". Hori dala eta, korukoak gazteak animau gura dabez parte hartzea. Arratiatik Zornotza eta Bilbora eta handik barriro Arratiara ibiliko dira Agate Deunaren bezperan. Korukoak eskola umeakaz eta Musika Eskolakoak kantauko dabe Arratian.

Ibilbide eta ordutegia:

09:00etan, Arantzazun.
09:15ean, Diman. Eskolako umeakaz.
09:30etan, Igorren.
09:45ean, Lemoan. Eskolako umeakaz.
10:00etan, Zornotzan.
11:15ean, Begoñako basilikan.
12:00etan, San Anton, Erriberako merkadua, plaza barria, Laboral Kutxa, udaletxea, BBVA, El Corte Ingles eta BBKn.
13:45ean, Bizkaiko Foru Aldundian.
14:30ean, bazkaria (Piperrak Txokoan).
17:00etan, Guggenheim museoan.

17:30ean, San Nikolasen, metroan, Donibane santuen plazaxoan...

18:00etan, Santiago katedralean kontzertua. Zazpikaleak.

20:30etan, Bedian Musika Eskolako umeakaz.

20:45ean, Artean. Musika Eskolako umeakaz.

21:00etan, Zeanurin. Musika Eskolako umeakaz.

21:15ean, Areatzan. Musika Eskolako umeakaz.

Beste koruak

Ez da hau Agate Deunaren koplak kantauko dituan koru bakarra. Izan be, asko dira Arratian tradizioari eusten deutesienak. Holan, eskolaumeak, parrokiako koruak, abesbatzak eta lagun taldeak, makila hartuta edo makila barik, ibiliko dira Arratian zehar kantuan.

Ezin itxi aitatu barik, Agate Deunaren hurrengo domekan, Zeanuriko Santa Agedako ermitan gizonen koruak kantetan dituan koplak. Kopia honek santearen martirioa deskribiduten dabe eta fama handia lortu dabe atzen urteotan.



Arratiako Korua igaz Areatzan.

BIDEOKLIPA

Amets Arzallus "Harro bizi euskeraz Lemoan" bideoklipen agertuko da

Erredakzioa

Euskerearen Egunean aurkeztutako "Harro bizi euskeraz Lemoan" kantaren bideoklipa grabetan hasi da Lemoako Udala. Lemoako Euskera Planaren barruan eta udalagaz alkarlanean, sortu eban Larregi Lemoako rock taldeak kantu hau. Orain bideokliparen grabaketari ekin deutesie Lemoako eta grabaketa hori Amets Arzallusen kolaborazioa-

gaz abiatu zan urtailaren 24an. "Herria hau euskeraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen" dino bertan bertsolariak. Euskera Zerbitzuetatik bideratu da guztia eta ez dago zuzendaririk ezta gidoigilerik. Bakotzak bideoklipen bere ekarpena egingo dau, eta gero, bideoaren montajea egingo daben adituak buztartuko dabe guztia.

Herriarrak protagonista

Amets Arzallus Euskal Herriko

bertsolari txapelduna izan da lehenengo bideokliperako bere ekarpena egiten, baina orain lemoaztarrak izango dira protagonista. Hilaren 8, 9 eta 15ean, herriko kuadrila, alkarte eta erakundeak euren ekarpenak egingo dabez: koreografiak, moztorroak edo kirol erakustaldiak, berbarako. "Hiru egun posible ipini doguz eta euren disonibilidadearen arabera, noz eta zein ordutan ahal daben galdetu

IRAKURLE KLUBA

Bernardo Atxaga Bediako
Irakurle Klubean

Erredakzioa

Atzeratu egin zan Bernardo Atxagaren *Nevadako egunak* liburua inguruko Bediako Irakurle Klubean saioa eta hilaren 5ean izango da, arrastiko 19:00etan. Genero literarioetan sailkatzea gax dan liburu hau komentateko aukerea izango dabe irakurleak saio honetan

Nevadako egunak liburuan, egileak Renon (AEB) bizi izandako esperientzia jasoten da. 2007an Renoko unibersidadean egon zan Atxaga beharrea. Familia osoa joan zan bertara eta lekuak sortutako sentimentu eta pentsamenduetatik abiatuta, 150 testu jasoten ditu liburua.

Atxaga nazinoartean ezaguna

Bernardo Atxaga (Jose Irazu Garmendia, Asteasu, Gipuzkoa,

1951) euskal idazlerik ezagunenetakoa da, *Obabakoak* (1989) publikatu ebanetik. Nobela hau hizkuntza askotara itzuli da eta mundu mailan ezaguna egin eban egilea. Espainiako Narratiba Sari Nazionala jaso eban Atxagak lan honegatik.

Atxagaren beste lan ezagun batzuk, *Behi euskaldun baten memoriak*, *Gizona bere bakar-dadean*, *Soinujolearen semea* eta *Zazpi etxe Frantzian* dira beste askoren artean.



Bernardo Atxaga.

SAN BALENDIN

Igazitik artea zenbat hazi dan
neurtuko dabe Eleizondon

Erredakzioa

Aurtengo San Balendin jaietan, Piedadeko artearen neurketaren 55. urteurrena ospatuko dabe Zeanuriko Eleizondoko auzunean, hilaren 16an. Hori dala eta, meza izango da 11:30ean Andra Mari parrokiari, eta meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan. Gero, ermitearen aurreko artearen neurketari ekingo deutesie. Neurketea-

ren aktea sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Maria Luisa Emaldik datorren urtekoari, Dionisia Zuluagari agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deutesaz. Ondoren, barauskarria; urdaia, pamitxea eta ardaia, bananduko da bertara hurreratzin diranen artean. Ekintza horreek herriko txistularien doinuen eta bertsolarien kantuen artean burutuko dira.

Igaz hartutako neurria honako hau izan zan: 182cm-ko perimetria 150 cm-ko altueran.

Bideokliparen grabaketa
Elkarte eta eragileek
Otsailak 8, 9 eta 15
Denok batera
Otsailak 16, 13:00ean
gaztetxe aurreko parkingean

Info +: euskera@lemoa.net / 94 6313005

deutsegu. Bakotzagaz ordu eta leku desbardin geratu gara grabaketea egiteko; beti be, dana ondo koordinatu ahal izateko eta jentea itxaroten ez egoteko" dinoe Euskera Zerbitzuetik. He-

ri guztia batera be grabatu gura dabe eta horretarako deialdi zabala egin dabe, hilaren 16rako.

Bideokliparen aurkezpena, martiaren 1ean egingo da, Aratusteetan.

BERTSO-AFARIA

Bertsoak Diman

Erredakzioa

Beñat Ugartetxea (Mallabia, 1979) eta Agin Laburu (Astigarraga 1985) bertsolariak girotuko dabe hilaren 15ean, Sugoï Gazte Asanbladak antolatutako bertso-afaria. Dimako gaztetxean izango da 21:00etan. Sarrerak Dimako Herriko Tabernan dagoz salgai 12 eurotan. Bertsolari bi honeek 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu dabe.

The Impresentables bueltan

The Impresentables taldea desegin zan disko bi atera ondoren, *The Impresentables* 1991ean eta *Inpresentableak aitaren etxean* 1996an. Orain, Dimako talde honek barriro be eszenalekura igoteko asmoa dauka. BEGITUK jakin dauaneren arabera Diman agertuko dira baina "ez dogu esan gura noz, ezustea izatea gura dogu eta" dinoe antolatzaileak. Zaleak kartelari adi egon beharko dira, beraz.

BERTSO AFARIA
OTSAILAREN 15ean
DIMAKO GAZTETXEAN
gaueko 21:00etan


Beñat Ugartetxea Agin Laburu

Sugoï Gazte Asanblada

MUSIKEA

The Pushermen jazz taldea Areatzako Hagina tabernan

Erredakzioa



Hilaren 14rako kontzertua antolatu dabe Haginan.

Kontzertu interesgarria antolatu dabe Areatzako Hagina tabernan hilaren 14rako, barikua. Eriz Perez (gitarra), Kike Mora (bajua) eta Xixo Yantanik (bateria) osotuten dabe The Pushermen taldea eta eurek Kike Guzman saxojolea egongo da. Taldeak, Bilboko Iman Pub-ean jam-sessiona egin izan dau eguenero. Funtsean jazz-a jo arren, funk, rock, pop eta reggae doinuak be baditu euren musikeak.

Taldea barria da, baina esperientzia handikoak dira bertan jotzen daben musikariak. Hareetako batzuk, Korrontzi, The Cherry Boppers, Trikizio, Hutsa edo Kepa Junkeragaz jo dabe.

ERAKUSKETEAK

Adierazpen dibersidadea Igorreko erakusketa gelan

Hilaren 8tik martiaren 8ra arte, Igorreko Kultur Etxeko erakusketa aretoan, Ines Medinaren Berezko sormen-prozesuaren garapena esperimentazio plastikoaren bidez mintegietan parte hartu daben artistak euren lanak erakutsiko dabez.

Erredakzioa

Hamabost artista dira, sano mundu eta estilo desbardinatukoak eta originaltasun handikoak. Batzuk Igorren sortu dira artista moduan, Medinaren mintegietan, eta gaur egun, Euskal Herrikan kanpo be erakusten ditue Arratian sortutako artelan honeek.

"Erakusketearen tituluagaz, Berezko adierazpenaren bizi dibersidadea, Igorre 2014, atzen 4 urteotan Igorreko Kultur Etxean emondako mintegien emoitzen errealidadea azaldu gura dot. Oraingoan, Igorre, Artea, Areatza, Mungia, Leioa, Algorta,

Areeta, Bilbo eta Deustuko 15 andra artistak erakusten dabez euren lanak. Erakusketea originaltasunaren eta berezko sortzearen aitorpen bat da, kontzeptu plastiko eta sano teknika landuakaz adierazota" azaldu deutso BEGURI Ines Medina erakusketearen koordinatzaileak.

Artista honeen lanak, arreta lortu dabela eta aukeratuak izan dirala erakusketak egiteko gure eremuan eta Euskal Herrikan kanpo dino Medinak. Leonen eta Granadan berbarako. "Eta badaukadaz arrazoiak esateko laster baten nazinoarte mailan be erakutsiko dituela".



DUNBA

Adin aniztasuna Zulaibarren

Zulaibargo ikasleak

Zulaibar Arratiako Lanbide ikastetxe-ko ikasleak 16 eta 50 urte bitartekoak dira, euren helburua lan mundurako prestakuntzea jasotea da.

Gaztetxoenak Lanbide Hastapeneko programetan dagoz, oinarriko formakuntzea jasoteaz gainera, DBHko Eskola Graduata ateratzea dabe helburu. Ondoren ikasketak jarraituten dabe erdi mailako ziklo baten, gero goi mailako zikloetara pasetako. Badagoz kasuak, non, unibersidadera be heldu diran.

Ikasle honek berba egin ondoren jakin dogu Zulaibarren giro ederrean eta gustora dabizala, irakasgaiak gaitzen ditue eta euren autoestimea eta etxeko giroa

hobetuten dirala ikusita oso pozik dagoz.

Erdi mailako zikloetan 18-30 urte bitarteko ikasleak dagoz, batzuk DBHtik datoz, beste batzuk Lanbide Hastapenetik eta beste batzuk behar dagoz eta titulazioa ofizial bat behar dabenez Zulaibarrera datoz. Behar dagoz ikasleak, programazio eta ordutegi malguak daukiezala azpimarratzen dabe. Zulaibarrek, beharreko ordutegiaren arabera, ordutegi bereziak prestatzen deutsez eta ikasketak jarraituteko aukerea ez dabe gaitzen.

Goi mailako zikloetan be edade desbardinatuko ikasleak topau daiegun, 18-45 urte bitartekoak, hain zuzen be. Behar dagoz ikasle ugari dago, eta honeen hel-

burua goi mailako titulazioa lortzea da. Honek be behar dagoz bitartean Zulaibarren ikasi ahal izate eskertzen dabe.

Lanbideko kursoetan 20 eta 50 urte bitarteko ikasleak dagoz, batzuk EPAko titulua ateratzegaz batera, kurso honek Erdi Mailako ziklo batera joateko formakuntzea jasotea daukie helburu. Beste batzuk ordea, langabezian dagoz eta ofizioa aldatu edo euren formakuntzea aberastera datoz, lana topatzeko aukerak ikus-



Zulaibarreko ikasleak.

ten ditue eta.

Zulaibarreko edade ugaritasunak guztientzat aberastasuna dakar, sozializaziorako aukera anitzak eskeintzen ditu eta ikasleak rol desbardinak hartzeako aukerea eskeintzen deutse. Ikasleak euren artean gertuago dagoz, eta alkar hobeto ulertzen dabe. Hurbiltasun horrek irakaspenak hobeto barnertzeko bidea ematen deutse. Gazteenak zaharragoakandik ikasten dabe, hur dituelako, eta zer egiten daben



ikusten dabelako. Aldi berean, zaharrenak be asko ikasten dabe gazteakandik, ikasi daben hori azaltzeko gaia ondo menperatu behar dabe eta. Edade ugaritasuna sano aberasgarria da pedagogia aldetik. Anai-arreben arteko ikasketea da. Edukiak ikasteaz gainera, biziteko modua be ikasten dabe. Bizitzan modu naturalean egiten dana da, bizitza ez dago antolatuta edadearen araberrako getetan. Edade guztietako jentea alkarregaz mobiduten gara.

Segidu daigun batak bestearengandik ikasten.

Etorkezun oparoa opatzen deustuegu guztioi.

AGENDEA

ZEZEILAK 3
BEDIA

17:00etatik 20:00etara eta hilaren 14ra arte, udalak antolatuta argazki erakusketea: 2013ko bigarren seihilekoan egindako jarduerak. Liburutegian.

Hilaren 7ra arte, eski urtekerako izena emoteko epea. Liburutegian. Urtekerea Baqueira Beretera izango da hilaren 14tik 16ra.

IGORRE

17:00etan, Guggenheim Museoak eta Jubiladuen Alkartek antolatutako berbaldiak Kultur Etxean.

LEMOA

Hilaren 14ra arte, Etxeko lanak: oinarriko konponketak eta mantenimentuak ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Ikastaroa martiaren 4an hasi eta bagilaren 3an amaituko da.

ZEZEILAK 4
ARRATIA

Arratiako Koruaren ibilbidea eta ordutegia 12. orrialdean.

BEDIA

17:00etan, plazan batu auzunez auzune Agate Deunaren koplak kantetan joateko.

LEMOA

09:50ean, Santa Ageda bezperako kanta kalejire Arratiako Koruak eta JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleak. Udaletxetik.

18:00etan, Lemoako Korak Arratiako Musika Eskoleagaz batera kanta kalejire. Udaletxetik.

ZEZEILAK 5
BEDIA

19:00etan, Irakurle Klubean Bernardo Atxaga egongo da *Nevadako egunak* komentetan irakurleakaz.

LEMOA

19:00etan, Carlos Arribasen berbaldia "Porlan enpresetan erraustean ingurumen ondorioak" Jubiladu Etxearen goiko aretoan.

ZEZEILAK 6
AREATZA

19:00etan, zineforuma *El diablo dijo no* (Ernst Lubitsch, 1943). AKKBk antolatuta Udal Aretoan.

DIMA

17:30ean, Nerea mendizabalen berbaldia, "Erlazioak eraikitzen: zigor, mehatxu eta xantaiak ekiditen" eskolan.

ZEZEILAK 7
AREATZA

19:00etan berbaldia "Abortatzeko eskubidea, lege aldaketaren ondorioak" Laminetxe Gaztetxean.

21:00etan, Gin Tonic taldea (jazz) The Quiet Corner-en.

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herrirak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan.

LEMOA

20:00etan, Lemoako Korak antolatuta, kantu-pote. Jubiladuen tabernatik. Ibilbidea: Jubiladuak, Bikandi, "Caza y Pesca" eta Mailuki.

22:00etan kontzertuak Gaztetxean. Omnia, Low Kick eta Inedituak.

ZEZEILAK 8
DIMA

23:00etan, Sugo Gazte Asanbladak antolatuta kontzertuak Larregi eta Deskuadre taldeakaz gaztetxean.

IGORRE

10:00etan, Autodefensa feminista tailerra. Formatzailea: Maitena Monroy. Kiroldegian.

22:00etan, zinea *Sobran las palabras* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal. Umeen urtekerea Pobeña-Kobaron. 10:00etatik 14:00ak arte, autodefensa ikastaroa. Kiroldegian.

Harro Bizi Euskeraz Lemoan bideokliparen grabaketea. Alkarte eta eragileak.

12:30ean Gure Esku Dago-ren auzkezpen ekitaldia. Aizkolariak, trikitilariak, material salmenta, ekitaldia, pintxo dastaketea... Plaza gorrian.

ZEZEILAK 9
IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea, *Futbolin*. 19:30ean, zinea, *Sobran las palabras* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Goizeko urtekerea Arratiatik.

"Harro Bizi Euskeraz Lemoan" bideokliparen grabaketea. Alkarte eta eragileak.

ZEANURI

12:00etan, mezea Santa Agedaren ermitan eta gizonen koruak koplak kantauko ditu.

ZEZEILAK 10
IGORRE

17:00etan, Guggenheim Museoak eta Jubiladuen Alkartek antolatutako berbaldiak Kultur Etxean.



Eñaut Elorrieta abeslaria Igorren hilaren 14an

Eñaut Elorrieta Ken 7 taldeko kantaria Igorreko Lasarte Aretoan egongo da hilaren 14an, iluntzeko 21:30ean, bere lehenengo bakarrek lana aurkezten. Lan honek *Deserriko kantak* izenburua dauka eta maiatzaren hasieran argitaratu zan. "Deserria ezleku da, sentimentu babesbakoen kontakizuna. Norbere burua berrasmatzeko aukerea be bada, geografia barrietan saiatzekoa".

Deserriari alde guztietatik begiratzen deutso Eñaut Elorrietak. Horretarako, bere testuak erabilteaz gainera, hainbat idazle eta poetarenak erabili ditu: Joseba Sarrionaindia, Joan Oliver, Mario Benedetti, Harkaitz Cano eta Bernardo Atxagaren testuak, beste batzuen artean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU
SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO
SALTZEKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizileku, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 72 50.

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. ITVa urri lehenengora arte pasauta. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

DANERIK
AREATZAN ETXEA ALOKAIRUAN

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terraza. 656 716 560.

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingelesezko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Eñaut Elorrietaren kontzerturako.

Yolanda Martinez (Areatza)
Galder Olibares (Igorre)



2 Alvaro Rabellik emondako *Naia India Gorrietan* liburua.

Harriketarrak (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Ontzi mota bat. 2.- Berogeta hamar erromatar. Andrazkoen izena.
- 3.- Amerizioa. (Atz.) Elementu batzuk alkar erakarri egiten dauz. 4.- Aditua.
- 5.- Bokala. Zilbor. Azken letrea.
- 6.- Mezako kopa itxurako ontzia.
- 7.- Ardiaren balaka. Aupa. 8.- (Atz.) Zugatz mota bat. Hartu eik.
- 9.- Tuaxaondoa. Bokala.

GOITIK BEHERA

- 1.- Bizkaiko hondartza. Berba alkarrean, begi. 2.- Konsonantea. Birritan, umeen berbetan, ura. Keaz bete. 3.- Sanskritoko silaba sakratua. Nortasuna, izakera. 4.- Tanta. (Atz.) Idiak geratzeko abotsa. 5.- Gainazpi egina. Bokala. 6.- Publizidade kanpaina batek errotan dau. Zutik, tente. 7.- Birritan, umeen berbetan ibili. Apoa.



Topau Arratia Inguruko Hiztegia "tximeleta" esateko jasoten diran zazpi aldaera.

S	O	R	G	I	N	K	O	I	E
T	X	E	S	A	K	A	B	I	A
A	Z	E	N	A	U	A	K	A	R
D	A	N	I	P	O	T	X	E	A
A	T	O	P	I	L	I	X	T	L
T	A	R	A	T	O	P	E	O	Z
O	R	T	A	X	E	I	M	K	O
P	A	R	E	I	G	R	A	I	B
I	S	T	I	L	A	R	H	L	U
L	I	S	T	O	O	I	I	I	K
I	R	B	A	T	U	X	E	X	A
X	E	R	K	A	L	T	T	T	U
T	A	N	B	O	L	I	R	I	Z
S	O	R	T	E	K	A	N	B	M
E	M	A	K	O	Z	K	O	R	E

AKI MI KO

Igor Menika



HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

bbk

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatekoa, herrikola

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

belagorri

mediku naturista
argatzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakoentzat elikagaiak
estetziarena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

NAIARA HIDALGO ETA ASER ASTORGANO

'Ez dogu gaztaia bakarrik saltzean, biziteko era bat saltzean dogu'

Naiara Hidalgo eta Aser Astorgano kanpotik etorritako ubidezarrak dira. Korta inguruan edurra dauala, gaztaitegiko atek zabaldu deusaz bikoteak BEGITURI. Zazpi urte daroz Idiazabal denominazinoko Pagobieta gaztaia egiten. Hasikerako proiektua ardi latxatik biziteko esnea saltzea zan, baina geroago gaztaiak egitera animau ziran. Derion eta Artzain Eskolan ikasketak egin ostean, Julian Ajuriagerrarenean egin ebazan praktikak Aserrek. Naiarak diseinu grafikoa ikasi eban eta Urrunagan egiten eban lan kamarera moduan. Lanpostu horretan sei urtez ibili ostean, gaztaiak egiten hasi zan. 250-300 ardi inguru daukiez, eta besteak beste Gorbeialdea programaren parte be badira.

Irati Urien

Hutsetik hasi zarie zuek, ez daukazue abeltzaintza ustiapenetan ibilitako aurrekorik.

Naiara: Hori da. Ez daukagu baserririk, pisu baten bizi gara herrian bertan.

Aser: Antxinako korta bat erosi genduan, eta gero konturatu ginan gaztaia izango zala diru sarrerak ekarriko euskuzana.

Nondik etorri jatzuen honetan hasi gurea?

Aser: Txurdinagan bizi nintzan ni, eta amama Zuhatsu Kuartangon, Araban. Amamaren etxera joaten nintzanean pastore bategaz egoten nintzan askotan. Gaur egun artzain horrek ikusten nauanean egundoko ilusinoa egiten deutso ni be pastore izateak. Derion ikasi neban, Nekazari Eskolako lehenengo promozinokoa naz. Gero, Arantzazuko Artzain Eskolan trebatu nintzan. Medikuaren semea ez da zertan medikua izan. Bizi egin behar da... Etxera heldutakoan nire lekua hauxe dala pentsetan dot.

Zergaitik Ubiden?

Naiara: Amaren herria da. Hogeitaurtera arte Logroñon bizi izan nintzan, baina uda pasetan Ubidera etorten nintzan.

Aser: Ni inguru honetara etorri nintzan hiru anaiok baserri munduan bizi gura gendualako. Zaldi heztegi bat montau genduan, eta ibilbideak egiten genduzan Gorbeiatik. Hortxe ezagutu neban Naiara. Zaldian ibiliten etorten zan Naiara ni ikusteko, eta ni zaldian ibiltzen nintzan bera etorten zanean. Kuriosoena da bietako inori ez jakula zaldian ibiltea gustetan.

Ze gaztai klase egiten dozue?

Aser: Gaztai klase bakarra egiten dogu, fetxearen arabera helduagoa edo ez hain heldua. Inoiz ketua egiten dogu, azoka askotan eskae-

rea dagoala ikusten dogu eta.

Naiara: Idiazabal denominazinduna egiten dogu. Molde txikian, 800 gramo ingurukoa.

Sari asko daukazue. Atzenengoa orain dala gitxi Santomasetan irabazia.

Naiara: Inportanteenak edo ilusino gehien egiten dabenak niretzat honeek dira: 2011n Plentzian irabazitakoa, Idiazabal gaztai lehiaketan izan zan, eta gureak lehenengo postua lortu eban. Mundu mailako World Cheese Awards txapelketan, sari bi daukaguz: 2011n brontzea ardi gazta onduaren kategorian, eta aurten zidarra. 2008an, Bilboko Santomasetako saria irabazi genduan. 2009an, ekoizle gazteenaren saria eroan eban Aserrek txapelketa horretan; eta aurten andrazko ekoizle gazteenarena neuk lortu dot.

Gorbeialdea programaren barruan be bazagozie. Zer da hori?

Aser: Turismoari begirako eskeintzak dira. Beste diru sarrera bat da guretzat. Gaztaiaren elaborazio prozesua erakusten dogu, gaztai-probatze txiki bat egiten da... Udan pasean eroaten dodaz inguruko tontorretara, txakurra artaldeagaz beharrezan zelan erabiltzen dodan erakusten deutset... danak poz pozik.

Gaztagintzatik bizi daiteke?

Naiara: Bai. Orain dala urtebete sartu nintzan ni negozioan. Oso ondo hasi ginan baina oraingo egoeran ez da erreza.

Aser: Ez daukagu bestelako diru sarrerarik. Aguantetan gabiz, buruari bueltak emoten, gauza barriak ikasten...

Udalbiltzak tokiko garapenerako proiektu bat ipini dau martxan Euskal Pirinioetan. Lehenengo sektoreari lagunduteko helburuz. Zer deritxa-

zue?

Aser: "Laguntza" kakotx artean ipini behar dala pentsetan dot, soldatea norberak atera behar dau eta. Gauza bat da negozio bategaz segiduteko edo barri bat hasteko laguntzea, eta horrerri ondo erizten deusat. Batzuetan arriskutsua izan leiteke, industria moduko bat da eta.

Egia da baina sektore honek bultzadaxo bat behar dauala.

Aser: Beti esaten dot "lehen sektorea", "lehen". Hau da, lehenengo hometik. Ez dakit zein dan formula, eta kontua ez da beti berau jagoten ibiltea, baina ezin da desagertu.

Naiara, damutu zara inoz ogibide honetan sartu izanaz?

Naiara: Orokorrean ezetz esango neuke. Egia da baina gauzak hobeto doazenean beste modu baten ikusiko dodala dana. Hemeko eguraldia sano gogorra da. Oporrak hartu be egin barik... Baina beste zozortan lan eginda be, langabezian egon zintezke.

Zuek zarie zuen negozioaren jaubeak, horren alde on eta txarrak.

Aser: Igaz lau egun opor hartu genduzan.

Naiara: Gure orduak ez dabez kontetan. Dirua euki eta lan hau kontrolatan dauan inor karguan ixteko kontratatzen dogunean joango gara oporretan.

Azoketara biok joaten zarie?

Naiara: Biok joaten ahaleginduten gara.

Aser: Ondo etorten jaku, holan nobiotan lez paseotxo bat emon geinke (dino barreka).

Seme bi daukazue. Jakituz zarie etorkizun baten posible dala eurek honetatik bizi gura izatea? honek jarraipen bat ez eukitea?

Naiara: Bai, bai. Beti esaten dot hau gustau egin behar jatzula. Derriortuta inor be ez.

Aser: Lagundu bai. 18 urte euki arte pagea euki gura badabe behintzat, sano argi daukat lagundu beharko dabela. Ez da txantajea izango, tokau egingo jakie. Baina ez arlo honetan bakarrik, lagundu behar danean lagundu egin behar da, etxean be beste horrenbeste.

Zenbatean saltzean dozue Pagobieta gaztaia?

Aser: Ferietan 18 eurotan.

Naiara: Eta gaztaitegian 15,50 eurotan. Eskualdeko prezioa da. Zazpi urtean 50 zentimo igon doguz, ferietan zero.

Aser: Ostantzeko gauza guztiak egin dabe gora, eta hori da txarrena. 1000 litroko gasoil depositua beteteko, bostehun eurogaz egiten genduan lehen, orain 1000 euro baino gehiago kostetan jaku.

Naiara: Lehen gaztai osoak saltzean ziran. Orain laurdena saldata pozik.

Animauko zeunkie jentea honetan sartuten?

Aser: Esango neuskiena da honetan dabilen jentegaz denporea emoteko. Gero be eukiko dabe denporea negozioari ekiteko. Formatu daitezala bildur barik, aukerea euki ezkerro doazala Artzain Eskolara, ikastaro teoriko sano interesgarriak be badagoz. Ni hemen nago gura dabenerako.



a window open to nature

ETXEGANA 
HOTEL & SPA



Bezeroen beharrianetara egokitzea da gure helburua Etzegana hotelean, eta, horretarako, aisialdi eta zerbitzuen eskeintza zabala daukagu. Jaletxe bikaina, Spa itzela eta azken teknologiez hornidutako aretoak, enpresa-batzarrak egiten eta ezkontzak ospatzeko.

Ipiñaburu 38 · Zeamuri
Tel.: 946338448
www.etzegana.com
E-mail: info@etzegana.com